

# Getxo >MEETING<



## **Ekainak 24**

### **Eskuratu udari ahalik eta probetxu handiena ateratzeko gakoak.**

Zure lanean uda goi-denboraldia bada, pentsatu hilabete hauetan nola luza dezakezun ahalik eta gehien efektu hori, irailean eta urrian denboraldia luzatzeko ekintzak eginez.

Kontrakoa gertatzen bazaizu eta uztailan eta abuztuan ez badago ia jarduerarik:

- Barneko lana egiteko aprobeitza dezakezu; esate baterako, argitalpenak programatzeko.
- Zure sareei eduki mota arinagoa eman, jakinik zarata gutxiago egongo dela sareetan. Hala, agian ikusgarriagoa izango zara.
- Bestela, oportetako itzulerak ustekabean harrapa ez zaitzan ekintzak diseinatzeko erabil dezakezu denbora.

Aisiarako, atsedenerako eta burua enpresatik ateratzeko astia izatea oso garrantzitsua da gerora gauzei indarrez heltzeko. Perspektiba hartzeko.

Aldi berean, udan lanean zabiltzan sasoiari, zentra zaitetz helburu honetan: zure enpresari bultzada ematea azken hiruhilekorako.

Zure kasua edozein izanik ere, honako hau behar duzu:

- Zure hartzaileei aurpegia eta begiak jartzea. Adina, kokapena, bizi-egoera, egoera emozionala nahiz ekonomikoa.

- Ulertu zerk bereziten zaituen, ez soilik lehiakideetatik, baizik eta zure balizko bezeroak aukera ditzakeen beste alternatiba batzuetatik.
- Ulertu nola biziko dituzten zure hartzaileek udako une edo hamabostaldi ezberdinak, gaurtik eta iraileko lehenengo hamabostaldira arte. Hala, une bakoitzean zer sentituko duten jakingo duzu.
- Ikusi zer behar izango duen zure zerbitzuei dagokienez. Hala, sare sozialen bitartez beraingana nola zuzendu jakingo duzu, eta beren bizi-momentuarekin enpatizatu ahal izango duzu.
- Bere buruan gero eta gehiago sartu eta gero eta gehiago enpatizatu, orduan eta gehiago limurtuko duzu zure argitalpenekin.
- Mezu elektronikoak bidaltzea eta pertsona zehatzei deitzea bezalako ekintzak orain egitea garrantzitsua da, gutxi gorabehera uztailaren 15a baino lehen. Izan ere, orduan aktibatzen da “hegazkin modua” erakunde askotan.

Interesgarria da ikustea nola, kanpoan mundua gelditu arren, beti egongo den jendea ordenagailuaren aurrean barneko lana egiten jarraitzen duena, lan hori ere oso garrantzitsua baita.

Gogoratu: Orain landatu, beranduago uzta jasotzeko.